



Surfatloia

EGUNA: 2025/06/22

ORDUA: 9:00-12:00

Antolatzailea: Groseko Indarra Surf Taldea

ARAUAK

1 art. GROSEKO INDARRAK antolatzen du, 25 urteurrenaren ospakizunen aktibitateen markoan. Sexu eta adin guztientzako froga herrikoia eta irekia federatu zein ez federatu izan.

2 art. BI IBILBIDE:

IBILBIDE LUZEA 16 urtetik gorako pertsonentzat

1 froga: Arraunketa (Groseko Indarratik - Portura) aprox 3 km

2 froga: Korrika (Portutik Groseko Indarrera Paseo Berritik) aprox 3 km

Denbora muga: 3 ordu

Modalidadeak:

- Paddle 14 oin baino txikiagoak
- Surf taula 8 oin baino handiagoak
- Surf taula 8 oin baino txikiagoak

Kategoriak:

- Emakumeak
- Gizonak

IBILBIDE MOTZA: adin guztiak

1 froga: arraunketa (Groseko Indarretik- espigoira) aprox 1 km

2 froga: Korrika (Espigoitik- Groseko Indarrera) aprox 1 km

Denbora muga: 1 ordu 30 min

Modalidadeak:

- Paddle 14 oin baina txikiagoak
- Surf taula 8 oin baina handiagoak

- Surf taula 8 oin baina txikiagoak

Kategoriak:

- Emakumeak
- Gizonak

3 art. Irteera 9:00tan izango da Ibilbide luzearentzat eta 10:30tan Ibilbide motzarentzat.

4 art. Lehiaketa kontrolatzeko kronometraia Kirolprobak-ekin egingo da.

5 art. Materialaren kontrola eta dortsal banaketa **ordu bete lehenago irekiko da**, hau da, 8:00tan irekiko da ibilbide luzea egingo dutenentzat, eta 9:00tan froga hasiko da. Ibilbide motza egingo dutenen kontrola eta checkin-a 9:30tan irekiko da eta 10:30tan froga hasiko da.

6 art. Korrikako froga ESPALOITIK egingo da bi ibilbideetan. **EZIN da bidegorria eta errepidea erabili.**

7 art. Groseko Indarrak ziurtatzen du kirol froga antolatzeko beharrezkoak diren baimenak dituela

Ibilbideen deskribapena

1 ibilbidea edo Ibilbide Luzea: Groseko Indarra - Zurriola hondartza- Portua - Groseko Indarra ST

Irteera: 9:00 Groseko Indarra klubean

Denbora maximoa: 3 ordu

8:00tan parte-hartzaile bakoitzak bere zenbakiarekin identifikatutako poltsa batean ekarri beharko ditu zapatillak, eta kontrol gunera garaiz iritsi beharko da checkin-a egiteko. Zenbakia eskuan idatzia eramango da, neoprenoaren



gainetik Groseko Indarra-ren likra bereizgarria jantzi beharko dira, eta helmugara iritsi arte mantendu.

Surfatloiaren oroigarri den kamiseta banatuko da.

9:00tan Groseko Indarra-ren instalazioetatik abiatuko da. Korrika itsas-ertzera norbera bere taula zein paddlearekin gerturatu beharko da.

Groseko indarraren likra jantzia eramango da

Lehenengo froga arraunean egingo da Urgull mendiaren atzetik portura iritsi arte. Ibilbide osoan zehar Gurutze Gorriaren babesa izango da.

Portura iristean antolakuntzako bolondresak taulak bilduko dituzte eta behar bezala identifikatuak geldituko dira.

Portuan edaria egongo da eskuragarri.

Parte-hartzaile bakoitzak bere zapatillak hartuko ditu eta korrika itzuliko da paseo berritik. Zapatillak behar bezala ordenatuak egongo dira dortsal zenbakiaren arabera kontrol gunean.

Neoprenoa eta Grosekoko likra bereizgarria kendu gabe Groseko Indarrera itzuliko da. Betiere ESPALLOIA erabiliko da. INOIZ EZ ERREPIDEA edo BIDEGORRIA.

Zapatillak edo Eskarpinak erabiltzea parte-hartzaileen ardura eta aukera da. Ezin da proba oinutsik burutu.

HELMUGA: Probaren amaiera GROSEKO INDARRA-ren gainean dagoen zabalgunean izango da. Sagüeseko erlojua eta arrapalaren lekuan.



2 ibilbidea edo Ibilbide Motza: Groseko Indarra - Espigoia - Groseko Indarra ST

Irteera: 10:30 Groseko Indarra klubean

Denbora maximoa: 1 ordu eta erdi

9:30etan Chekin-a egingo da Groseko Indarraren gainean dagoen zabalgunean.

Zapatillak dagokien zenbakiarekin identifikatuak ekarriko dira; eta espigoian egongo den irteera puntura eramango ditu parte-hartzaile bakoitzak.

Neoprenoaren gainetik Grosekoko likra bereizgarria jantzi beharko da eta frogak iraun bitartean mantendu.

Surfatloia oroigarri den kamiseta banatuko da.



Parte-hartzaile bakoitzak bere zenbakia eskuan idatzia eramango du.

Groseko Indarraren likra jantzia eramango da lasterketa osoan zehar.

Parte-hartzaileak 10:30etan aterako dira Groseko Indarre-tik eta Sagüesen uretaratuko dira arraunean espigoiaraino, 1 km-ko ibilbidea eginaz. Ibilbide osoan Gurutze Gorriaren babesa izango da. Espigoian antolakuntzaren kontrolgunean taulak bilduko dira eta behar bezala identifikatuko dira.

Ondoren, uretatik atera eta Zurriola pasealekutik itzuliko dira korrika (1 km) Groseko Indarra klubean amaituz. ESPALOA erabiliko da. EZ ERREPIDEA, EZ BIDEGORRIA.

Zapatillak edo Eskarpinak erabiltzea parte hartzaileen ardura eta aukera da. Ezin da proba oinutsik burutu.

HELMUGA: Probaren amaiera GROSEKO INDARRA-ren gainean dagoen zabalgunean izango da. Sagüeseko erlojua eta arrapalaren lekuan.



12tan bi frogak amaitutzat emango dira. Amaieran sari banaketa, musika eta janari zein edaria.

IZENEMATEAK

Ordainsaria: 10 €

Izen emateko epea maiatzaren 26an irekiko da eta ekainaren 20an itxiko da 18:00tan

Izen-emateak www.kirolprobak.com webgunetik egingo dira. Ordainsaria izen-ematearekin batera egingo da. Groseko Indarraren webgunean ere esteka egongo da kirolprobak webgunera.

Izen-ematean zehaztuko du parte-hartzaile bakoitzak haren ibilbidea eta modalitatea. Eta ZENBAKI bat egokituko zaio, izen-emate ordenarekin bat datorrena.

Izen-ematearen barne dago:

- Frogan parte hartzea
- Frogaren Asegurua
- Asistentzia (Gurutze Gorria) frogan zehar eta iristean
- Hornidura
- Kamiseta

Parte-hartzaile kopurua 150-era mugatuko da.

ZERBITZUAK ETA ZIURTASUNA

Parte-hartzaileen materiala Groseko Indarraren gainean jarriko den kontrol gunean gordeko da eta antolakuntzak zainduko du. Balio handiko materiala ez uztea aholkatzen da.

Materiala behar bezala identifikatua egongo da parte-hartzaile bakoitzaren ZENBAKIAREKIN.

Materiala biltzeko eskuan idatzitako zenbakia erakutsiko da.

Taulak portuan bilduko dira Ibilbide Luzean eta Espigoian Ibilbide Motzean eta dagokion zenbakiarekin identifikatuko dira Groseko Indarra-ra itzultzeko.

Uretan Gurutze Gorriaren babesa izango da.

FROGAREN ALDAKETA

Klimatologia edo itsaso baldintzak oso txarrak baldin badira antolakuntzak ibilbidea aldatzeko edo froga bertan behera uzteko erabakia har dezake.

DESKALIFIKAZIOAK EDO FROGA UZTEA

Kirolaria URETAN oso atzean geldituko balitz, ziurtasuneko arduradunak froga uztera gonbidatuko dute.

Egoera fisiko txarrean zein ondoezak jota aurkitzen den kirolariak laguntza eskatuko du beso bat edo bi altxatuz eta froga uztea behartua egongo da.



Ziurtasun neurriak errespetatzen ez dituzten kirolariak deskalifikatuak izango dira.

Portaera ezegokia duten kirolariak froga uztera gonbidatuak izango dira.

PARTE-HARTZAILEAREN ARDURAK DIRA

Kirolariak osasun ona duela eta proba hori egiteko fisikoki prestatuta dagoela bermatzen du inskripzioa egitean, bere onerako eta gainerako parte-hartzaileen segurtasunerako. Halaber, proban parte hartzeak dakartzan arriskuak bere gain hartzen dituela.

Mila esker,

Groseko Indarra Surf Taldea.